

HOGEITA SEIGARREN BILERAREN akta

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIA

Eguna eta ordua: 2021eko uztailaren 1a, 10:00etatik 12:00etara.

Tokia: Bideokonferentzia bidez egindako bilkura.

- Gai-zerrenda:**
1. Ongietorria eta dokumentazioa ematea.
 2. Gai-zerrendaren irakurketa.
 3. Aurreko bilkurako akta onartzea.
 4. Ordezkarri berriak aurkeztea.
 5. Behatokiak 2020an egindako jardueren memoria aurkeztea.
 6. Behatokiaren 2017-2020 aldiko ebaluazioa aurkeztea.
 7. Behatokiaren lan plana 2021.
 8. Arreta-zifren aurrerapena 2020.
 9. Galde-eskeak.
 10. Agurra eta hurrengo jarduketak.

Bertaratu dira:

Lehendakaria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua: M.^a Teresa Laespada andrea.

Lehendakariordea: Berdintasuneko zuzendari nagusia: Patricia Campelo andrea.

Idazkaria: Berdintasuneko goi-mailako teknikaria: Alixe Rodríguez andrea

Kideak:

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia): Cristina Sarduy andrea

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia): Oscar Seco jauna

- BFAko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila: Esther Glez. de Audikana andrea

- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea: Zuriñe Elordi andrea

- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila: Ana María Reka andrea

- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila: M.^a Antonia Olabarrieta andrea

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: Nerea Urien andrea

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila: Igone Martínez de Luna andrea

- Udalerriak eta mankomunitateak - EUDEL:

o Gordexolako Udala: Beatriz Atienza de Mingo andrea

o Barakaldoko Udala: María Solar andrea



- Elkarateak eta erakundeak:

o *Genero-indarkeriaren eremukoak:*

-ARGITAN Emakumeentzako Aholku Zentroa: Mireia Saiz andrea

-AUZOLAN Laguntza Psiko-Sozialeko modulua: Marta Dolado andrea

o *Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren izenean:*

-ERLANTZA elkartea: Raquel Teresa Miragaya andrea

**Ez
bertaratzea
desenkusatu
dute**

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila (Lankidetzaren eta Aniztasunaren Zuzendaritza Nagusia): Ignacio Rodríguez jauna

- Udalerrriak eta mankomunitateak - EUDEL:

o Fruizko Udala: Ane Legarretaetxebarria andrea

Materialak:

Bilkuraren aurretik, honako hauek eman dira:

- "BIMBren 2020ko jardueren memoria".
- "Behatokiaren 2017-2020 aldiko ebaluazioa".

Landutako gaiak:

1. **Bertaratutakoei ongietorria egitea**; Teresa Laespada arduratu da.
2. **Gai-zerrenda irakurtzea**; Patricia Campelo arduratu da.
3. **Aurreko bilkurako akta onartzea**; Patricia Campelo arduratu da.
4. **Ordezkarri berriak aurkeztea**; Patricia Campelo arduratu da.
5. **Behatokiaren 2020ko jardueren memoria aurkeztea**; Patricia Campelo arduratu da.
6. **Behatokiaren 2017-2020 aldiko ebaluazioa aurkeztea**; Patricia Campelo arduratu da.
7. **2020ko zifren aurrerapena aurkeztea**; Patricia Campelo arduratu da.
8. **Behatokiaren 2021eko lan planaren aurkeztea**; Patricia Campelo arduratu da.
9. **Bilkura 11:30ean amaitu da**; M. Teresa Laespada arduratu da.

BILERAREN GARAPENeko GAI ETA ESKU-HARTZE NAGUSIAK

Esparru gisa:

M.^a Teresa Laespada andreak saioari hasiera eman dio, eta gogorarazi du 2020an 56 urteko emakume bat hil zutela Bizkaian, Sestaon. Adierazi du garrantzitsua dela biktimak gogoratzea. Espainian gertatutako hilketa matxisten azken kasuak aipatu ditu.

Ondoren, pandemiak indarkeria matxistaren larriagotzean duen eraginaz mintzatu da, eta, hori adierazteko, datu esanguratsuak eman ditu konfinamenduaren ondorioak gehien jasan dituzten zerbitzuei dagokienez, hala nola telefono bidezko arreta edo poliziaren esku-hartzea. Aurreko osoko bilkuran jakinarazi zen bezala, BFAk larrialdiko harrerako plazen kopurua handitu du eskaeraren igoerari erantzuteko, eta, gainera, Maskara-19 kanpaina garatu da farmazien laguntzarekin. Halaber, foru erakundeak ikerketak egin ditu pandemiak emakumeengan dituen ondorioak ezagutze aldera; laster zabalduko dira.



Behatokiari dagokionez, adierazi du 2020a aldaketa-urtea izan dela organoarentzat. Sortu zenetik Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzura atxikita egon da, baina, orain, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari esleitu zaio. Era berean, izena aldatu zaio, alegia, “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia” izatetik “Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia” deitzera igaro da, Berdintasunerako Foru Arauan adierazitakoa betez. Azpimarratu duenez, aldaketak adierazleengokitzapena eta indarkeria-moten kontzeptuen hedapena dakar.

Gogorarazi du behatokia 2003an sortu zela Foru Dekretu bidez, eta, beraz, 2023an 20 urte beteko dituela. Fenomenoa neurtzeko ibilbide luze horren balioa nabarmendu du, eta mota horretako egiturei denboran eusteko zailtasunez aritu da. Beraz, beharrezkoa da horri balioa ematea, baita behatokia eta haren ezagutza bezalako tresna bat edukitzeko ahalegina aitortzea ere. Azaldu duenez, behatokiaren erregistroek luzetarako begirada izatea ahalbidetzen dute epe luzerako, eta horrek, errealitate hurbilenean edo perspektiban, ezohiko egoeren —2020ko pandemia— ondorioak ikustea errazten du.

Esan duenez, Foru Araua betetzen ari da, informazio zentro indartsu bat egiteari dagokionez, zeinaren bidez indarkeria matxistaren inguruan zer gertatzen ari den jakin ahal izango dugun eta, errealitate informatu bat oinarri hartuta, gomendioak emango diren. Behatokiaren webgunea berritzea aipatu du, dinamismo eta kontsulta-erraztasun handiagoz hornitu baita; adierazi duenez, espazio hori asko bisitatzen dute ikertzaileek datuak kontsultatzeko aldera.

Amaitzeko, eskerrak eman dizkie bilkurara bertaratu direnei, eta datu guztien eta behatokiaren lanaren berri eman die.

Ordezkar berriei buruz:

Patricia Campelo andreak azaldu du Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua (BEPK) behatokian sartu dela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroaren ordezkari. Foroak izendatutako elkarteetan lana eskertu du, behatokian parte hartu baitute (azkena, Bidaya), eta ongietorria eman dio Erlantza elkarteari. BEPK-k izendatu du eta Raquel Miragaya du ordezkari.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako kideak aldatu direla gehitu du. Hala, ordezkari berriei ongietorria eman die eta bertaratuak parte-hartzea eskertu: Osasun Sailean, Nerea Urien andreak ordezkatzeko du Fátima Ansotegi andrea, eta Hezkuntza Sailean, berriz, Xabier Aizpurua jaunak ordezkatzeko du Olatz Garamendi andrea. Titular berria ezin izanenez bertaratu, sail honen ordezkari gisa, Igone Martínez de Luna andrea etorri da, haren ordezkari.

Behatokiak 2020an egindako jardueren memoriaren aurkezpenari buruz:

Patricia Campela andreak behatokiaren 2020. urteko jardueren memoria aurkeztu du, organoaren lau jardueraren arloetan arabera.

Funtzionamenduaren eta administrazioaren arloan, urtean zehar egindako Osoko Bilkuraren eta Adierazleengok Lantaldearen (AL) bileren berri eman du, baita 2017-2020 aldiko organoaren ebaluazio-prozesuaren berri ere. Bilkuraren gai-zerrendako hurrengo puntuan aztertuko dira bileren emaitzak.

Jarraian, 2020an egindako datu-bilketaren prozesuak zehaztu ditu, baita behatokiari laguntza eman dioten informazio-iturriak ere, eskatutako datuak eta informazioa emanez.

Behatokiaren bi helburu orokorrei erantzunez, 2020an egindako produktuak aztertu ditu. Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutzaren planoan, honako hauek egin dira: 2019ko zifren aurrerapena, 2019ko zifren



txosten osoa, udal txosten indibidualizatuak —2020ko Udalerrietako Informazio Orria— arreta-zerbitzu propioak dituzten udalerrri eta mankomunitateentzat, 2020ko baliabideen katalogoa, eta 2020ko baliabideen atlasa. Orobat, webguneko baliabideen datu-basea eta datu-base bibliografikoa mantentzeko eta eguneratzeko zereginak garatu dira. Gomendioak egitearen planoan, 2020an, Gomendioen eta hobekuntza-proposamenen III. txostenean jasotako gomendioen jarraipena egin da; 2016an argitaratu zen txosten hori.

Azkenik, zabalkundeari dagokionez, webgunearekin lotutako jarduera azaldu du, eta, bereziki, webgunearen berrikuntzari erreparatu dio (espazio berria azaroan zabalduko da). Behatokiaren zabalkunde-buletinarekin lotutako jardueraz ere hitz egin du, 2020an 16 urteko edizioa bete baitu.

Behatokiaren 2017-2020 aldiko ebaluazioaren aurkezpenari buruz

Patricia Campelo andreak Behatokiaren 2017-2020 aldiko Ebaluazio Txostena aurkeztu dio Behatokiaren Osoko Bilkurari; organoaren webgunean dago eskuragarri.

Txostenak 2017-2020 aldian behatokiaren esparruan egindako jardueren ebaluazioaren emaitzak jasotzen ditu, aurreko aldietako ebaluazio jarraituko prozesuen ildotik.

Era berean, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko organoa Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusira atxikitzea mugarri egokitzen jo da, 17 urteko ibilbidearen ikuspegi orokorra lortzeko eta etapa berrian baliagarriak izan daitezkeen ikaskuntzak identifikatzeko.

Horretarako, Garapenerako Banku Interamerikarraren (GIB) indarkeria-behatokien heldutasun-eredua erabili da; izan ere, eredu hori delituaren behatokiak testatzera bideratuta dagoenez, aldagai gehienak koherenteak eta egokiak dira Bizkaiko behatokiarekin kontrastatzeko. Azterketa osatzeko, esparru espezializatuetan identifikatutako beste adierazle esanguratsu batzuei erantzun zaie.

Laburbilduz, GIB ereduak lau adierazle nagusi dituela azaldu du: erakunde-gaitasuna, ekintza-eremua, eragina eta jasangarritasuna. Horietako bakoitzak lau eta sei aldagai artean ditu, eta horiei lau heldutasun-maila posible esleitzen zaizkie. Behatokiak argi eta garbi erantzuten dio finkatutako mailari, aldagai gehienetan. Jarraian, emakumeen aurkako indarkeriaren behatokitarako adierazleen erantzunari buruzko aurkikuntzak azaldu ditu. Bileraren atal hori amaitzeko, behatokiaren ebaluazio-txostenean jasotako ondorioak eta etorkizuneko erronkak azaldu ditu.

2020an emandako arretaren lehen datuen aurkezpenari buruz

Patricia Campelo andreak Bizkaiko arreta-zerbitzu publikoen 2020. urteko lehen datuak aurkeztu ditu, emakumeen aurkako indarkeri dagokionez, esku-hartze sozial, polizial, judizialaren eta osasuneko esku-hartzearen arloetan.

Urteko adierazle orokorrekin batera, aldiaren bilakaerari buruzko datuak jaso dira, eta, horiei esker, zer joera dauden ikus dezakegu.

Behatokiaren lan planaren aurkezpenari buruz:



Patricia Campelo andreak behatokiaren jarduera planifikatzeko ildo nagusiak azaldu ditu aldi horretarako. Lehenengoak organoak duen rolaekin lotutako gaiak biltzen ditu, BFAko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren tresna gisa, aurreko urtean hari atxiki baitzen. Bigarren ildoak errealitatea ezagutzeko funtsezko helburuarekin lotuta dago, eta egindako ibilbidetik abiatuta aurrera egitea eta testuingurura egokitzea du helburu. Hirugarrenik, behatokitik zabalkundea eta komunikazioa hobetzeko neurriak jasotzen dira, webgunearen indartzea nabarmenduz.

Aurkezpenean, 2021ean garatzen ari diren jarduerak zehaztu ditu, alderdi hauei dagokienez: koordinazioan eta kudeaketa, datu-bilketa eta informazio-sistemaren mantentze-lanak, produktuen elaborazioa eta hedapena. Horrez gain, jardueren egutegia aipatu du, bai eta zer motatako jarduerak diren ere.

Lortutako erabakiak

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
2. Bilkura honetan azaldutako dokumentuak baliozkotzea.

Sin./Fdo.: ALICIA RODRIGUEZ GIL 2022-12-02
BERDINTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
TÉCNICO/A SUPERIOR DE IGUALDAD DE DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD

Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ 2022-12-05
ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD

